



UDALERRIKO GIZARTE ETA KULTUR ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, 2025. URTEAN JARDUERAK GARA DITZATEN.

1. artikulua.- Xedea.

Deialdi honen xedea Lezama Udalerriko gizarte eta kultur esparruko eta erkidegoa garatzeko jarduerak eta egitarauak finantzatzeko laguntzeko dirulaguntzak ematea da, lehiaketa bidez, horretarako Udaleko Osoko Bilkurak onartutako ordenantzako araudi arautzailean aurrez ikusitako betekizunak betetzen dituzten gizarte eta kultur elkarteek, irabazi asmorik ez dutenek, 2025. ekitaldi honetan garatutakoak.

Bereziki honako jarduerak jaso ahalko dituzte dirulaguntzak:

- 1.- Kultura edozein alorretan hedatzeko jarduerak biltzen dituzten egitarauak, bereziki euskal kultura hedatzeko bada.
- 2.- Animazio soziokulturaleko eta komunitatearen garapenerako egitarauak.
- 3.- Euskara lagundu eta hedatzeko proposamenek.
- 4.- Udalerriko interes kulturala duten azterlanak taxutu eta editatzeak.
- 5.- Emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko konpromisoa sustatzen duten programek.
- 6.- Artearen edozein alderdi sortu eta garatzeko egitarauak, batez ere lezamarrek egindakoak eta garatuak.

2. artikulua.- Dirulaguntzaren helburua.

Deialdi honetan aipatzen diren dirulaguntzen helburua da irabazi-asmorik gabeko ekimen publiko edo pribatuetan laguntzea, udal-eskumeneko jardueretan parte hartzeagatik, haien garapena osatuz edo ordeztuz, betiere diruz lagundutako jarduerak ematen diren ekitaldian gauzatzen badira.

Diruz lagundutako kultura-jarduerak publikoak izan behar dute, eta udalerriko auzotar guztien eskura egon behar dute.

3. artikulua.- Dirulaguntza motak.

Deialdi honek dirulaguntza mota hauek ezarri ditu:

- Dirulaguntza orokor arrunta: elkarteko urteko ohiko jardueretarako laguntzak.
-
- Dirulaguntza berezia: elkartearen ohiko jardunaren barruan ez dauden aldizkako ekitaldietarako laguntzak.



Jarduera berbera bi dirulaguntzetara aurkeztea ez da bateragarria izango.

4. artikulua.- Onuradunak.

1.- Irabazi asmorik gabeko elkarte soziokultural pribatuak udal deialdi honek araututako dirulaguntzen onuradunak izan ahal izango dira, betiere araudi honetan xedatutako betekizunak betetzen badituzte.

2.- Dirulaguntzen araudi orokorrean xedatutako betekizunak edo betebeharrak ez ezik, dirulaguntzak jasotzen dituztenek honako betekizunak ere bete beharko dituzte:

- a) Legez eratuta egotea.
- b) Helbide soziala Lezaman ezarrita izatea.
- c) Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan eta Lezamako Udalaren elkarteen erregistroan izena emanda egotea eta jardun-eremua Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan egotea.
- d) Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin egunean egotea eta, hala balegokio, lehenago Lezamako Udalak emandako dirulaguntza edo dirulaguntzak justifikatuta izatea, beti ere horretarako epea igaro bada.
- e) IFZ eta dagozkion erantzukizun zibileko aseguruak edukitzea.

Justifikazio-agiriak aurkezteak ez dakar, besterik gabe, aurkeztutako justifikazioaren onespena.

Ezingo dira onuradunak izan indarreko Dirulaguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan xedatutako baldintzaren bat betetzen duten erakundeak.

5. artikulua.- Diruz lagunduko den gehienezko zenbatekoa guztira.

Deialdi honetarako kreditua 19.950,00 eurokoa da, 2025ko ekitaldi honetarako onartu den 334 48101 aurrekontu partidan dagoena.

Elkarte bakoitzarentzat diruz laguntzeko gehienezko zenbatekoak ezingo du izan aurrekontu araztuaren % 60 baino gehiagokoa.

Dirulaguntza bereziek entitate eta urte bakoitzeko gehienezko 1.500 euroko muga izango dute.

6. artikulua.- Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Lezamako Udalak eman litzakeen dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuak emandakoekin. Edozelan ere, dirulaguntza jasoko duen programa edo jarduera burutzeko eskuratutako guztizko finantzaketa ezin izango da haren kostua baino handiagoa.



Dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek, hala balegokie, udalari jakinarazi beharko diote, eskabidea egin ondoren xede berbererako eman dakizkiekeen bestelako dirulaguntzak edo laguntzak jaso dituztela.

7. artikulua.- Deialdia eta eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, dagokion deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Dirulaguntza bereziak urtean zehar aurkeztu ahal izango dira, jarduera egin baino 60 egun natural lehenago.

Ez da baloratuko epez kanpo aurkeztutako eskaerarik.

8. artikulua.-Eskaerak eta dokumentazioa.

Eskabideak Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, eskabide ofiziala betez, honako baldintza hauen arabera:

a)Elkartearen legezko ordezkariak eta/edo horretarako ahalorde nahikoa duen pertsonak izenpetuko du eskabidea. Alderdi horiek egiaztatu egin beharko dira, eta horretarako nahikoa izango da ekitaldi bakoitzean onartutako Zuzendaritza Batzordearen eraketa jasotzen duen aktaren kopia aurkeztea.

b)Eskabidearekin batera, programatutako jardueren Memoria xehatua aurkeztu beharko da, eta gutxienez honako hauek adierazi beharko dira:

1.-Programatutako jardueren Memoria zehatza, gutxienez honako hauek adierazita:

1.1.Jarduera zehatzaren deskribapena (hala behar denean), noiz egingo diren (datak) eta aurreikusten diren helburuak.

1.2. Helburu den biztanleria-eremua: aurreikusten den parte-hartzaile kopurua, sexua, adinak, etab.

1.3. Erakundeak programaren eskura jartzen dituen baliabide edo azpiegitura propioak.

1.4. Euskararen erabilera.

1.5. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren trataera.

2. Aurrekontu osoa, jaso beharreko laguntzak behar bezala justifikatuta.

3. Elkarre eskatzailearen kontua irekita duen banku-erakundearen ziurtagiria, dirulaguntzaren zenbatekoa gordailutuko den kontu-zenbakia adierazita (II. eranskineko **3. Alta eredia**).

4. Abian dagoen urterako **erantzukizun zibileko** eta istripuetako **aseguruaren** ordainagiria.

5. Baloratu daitezkeen beste alderdi batzuk.

Ez da beharrezkoa izango elkarre erregistroan dauden eta aldaketarik izan ez duten dokumentuak aurkeztea, hala nola estatutuak, izendapenak eta abar.



9. artikulua.- Eskabide osatugabeak edo/eta akastunak.

Akatsak aurkituko balira edo eskabideek aipatu betekizun guztiak beteko ez balituzte, eskaera egingo zaie interesdunei hamar (10) egun balioduneko epean agiriak zuzendu ditzaten; halaber, ohartaraziko zaie emandako epean eskatutako zuzenketak egin ezean, eskaerari uko egiten zaiola ulertuko dela, eta izapide gehiagorik gabe artxibatuko dela hura, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan xedatutako ondorioekin.

10. artikulua.- Organo izapidegilea.

Espedientearen izapidegilea Lezamako Udaleko Herritartasun Batzordeko burua izango da.

Lezamako Udaleko Herritartasun Batzordea izango da kide anitzeko organoa, egindako ebaluazioaren emaitza eta onesteko proposamena zehaztuko dituen.

Deialdia ebazteko erabakia Alkatetzak hartuko du, organo izapidegileak proposatuta.

11. artikulua.- Emateko prozedura.

Dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emango dira, aintzat hartuta ekitaldi honetarako 334 48101 aurrekontu partidari horretarako bideratutako kredituaren zenbatekoa, elkarte bakoitzaren kasuan gehienez lagun daitekeen zenbatekoa eta lortutako puntuazioa, hurrengo idatz-zatian zehaztutako balorazio irizpideen arabera.

12. artikulua.- Eskabideak baloratzeko irizpideak.

Lezamako Udalak dirulaguntzak emango dizkie udalerrirako interesgarritzat jotako egitasmoei, betiere diruz lagunduko den jardueraren xedeari lotuta ez dauden gastuen justifikazioa eta, hala badagokio, arazketa aurretiaz espedientearen jaso badute; horretarako, honako irizpide hauek kontuan izango dira:

A) EUSKARAREN LEKUA, BITARTEKO ETA HELBURU GISA (0-15 puntu bitartean).

Irizpide hau modu objektiboan baloratu ahal izateko, elkarteek euren jardueren berri emateko erabili dituzten dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

A1- Memoria euskaraz idaztea: 0-5 puntu.

0 puntu memoria gaztelaniaz egiten bada.

5 puntu memoria euskaraz edo hizkuntza bietan egiten bada.

A2- Jakinarazpenak, publizitatea... euskaraz: 0-5 puntu.



Jardueren zabalkundean euskarak duen presentzia baloratuko da. Gaur egungo ordenantzak honela dio 16.2 artikuluan: *"Udal dirulaguntza jaso duen orok, erakundea nahiz pertsona izan, egitarauen propaganda iragarlea euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz egin behar du, horri buruz onartutako hizkuntza irizpideen arabera"*.

2,5 puntu jardueren publizitatea euskarazko edo euskaraz eta gaztelaniazko kartelen bidez egiteagatik.

2,5 puntu bitarteko digitaletan jardueren publizitatea euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egiteagatik (web-orriak, sare sozialak...).

A3- Antolatutako jardueretan euskara erabili eta zabaltzea: 0-5 puntu.

Azaldu nola egiten den euskararen sustapena, bai elkartearen eguneroko lanean, bai egiten dituen jardueretan, eta horretarako zein bitarteko erabiltzen dituen.

0 puntu, bere jardueretan ez bada euskara sustatzen.

5 puntu, aurkezten duen proiektuan, jardueraren helburua euskara sustatzea bada.

B) AURKEZTUTAKO EGITARAUAK EDO JARDUERAK GIZARTEAN DUEN ERAGINA (0-15 puntu bitartean).

B1- Bazkide-kopurua: 0-5 puntu.

0 eta 10 artean: puntu 1.

11 eta 25 bitartean: 2 puntu.

26 eta 50 bitartean: 3 puntu.

51 eta 75 bitartean: 4 puntu.

76tik aurrera: 5 puntu.

B2- Gizartean antolatutako jarduerak duten eragina. Nori zuzenduta dauden: 0-5 puntu.

- Lezamarrentzat: 2,5 puntu.
- Lezamarrentzat eta Lezaman erroldatuta ez daudenentzat: 5 puntu.



B3- Adinekoei eta ume eta gazteei zuzendutako ekintzak: 0-5 puntu.

Modu positiboan baloratuko da programatutako jarduerak ume eta gazteei eta hirugarren adinari (65 urtetik gora) zuzentzea.

Beren-beregi ume eta gazteei, eta hirugarren adinekoei zuzendutako jarduerak: 1,5 puntu jarduera bakoitzeko; gehienez ere 3 puntu.

Ume, gazte eta hirugarren adinekoek parte hartu ahal duten jarduerak: puntu 1 jarduera bakoitzeko; gehienez ere 2 puntu.

C) PROIEKTUAREN BIDERAGARRITASUN TEKNIKOA ETA EKONOMIKOA, norberaren baliabideekiko eskatutako dirulaguntzaren proportzioaren arabera: 0-5 puntu.

- Aurrekontuaren % 30 baino zenbateko txikiagoa eskatzea: 5 puntu.
- Aurrekontuaren %31 eta %40 arteko zenbatekoa eskatzea: 4 puntu.
- Aurrekontuaren %41 eta %45 arteko zenbatekoa eskatzea: 3 puntu.
- Aurrekontuaren % 46tik % 50era bitarteko zenbatekoa eskatzea: 2 puntu.
- Aurrekontuaren % 51 eta 60 arteko zenbatekoa eskatzea: puntu 1.
- Aurrekontuaren % 60tik gorako zenbatekoa eskatzea: 0 puntu.

D) UDALAREN INTERESAK ETA AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN PROPOSAMENAK BAT ETORTZEA (0-15 puntu bitartean).

D1- Elkaratearen jarduerak udalaren kultura-programazioarekiko osagarriak izatea: 0-10 puntu.

Elkaratearen parte-hartzea Udalak antolatutako jarduerak osatzeko orduan, esaterako: ZORRIJAIA, Jaiak (Andramariak, Bolaleku, Kurtze, Goitioltza, San Antolin, San Isidro...), Olentzero eguna eta Gabonak, Inauteriak, Txakolin eguna, Eskola eguna, Emakumearen eguna (Martxoak 8), Euskeraren eguna, Agate Deuna, Sta. Zezili Korrika, Osasunaren lasterketa, KORRIKA...

- Jarduera 1: 3 puntu.
- 2 jarduera: 6 puntu.
- 3 jarduera: 9 puntu.
- 4 jarduera edo gehiago: 10 puntu.

D2- Beste elkarte batzuekin batera jardutea jarduera ezberdinak antolatzeko orduan: 0-5 puntu.

- Jarduera 1: 2 puntu.



- 2 jarduera: 3 puntu.
- 3 jarduera edo gehiago: 5 puntu.

E) URTEKO EGITARAU IRAUNKORRA ETA ETENGABEA, BAI ETA ZEHAZTEN DIREN PROIEKTU ETA HELBURUAK ERE. (0-10 puntu bitartean).

- 6 jarduera edo gehiago: 10 puntu.
- 5 jarduera: 8 puntu.
- 4 jarduera: 6 puntu.
- 3 jarduera: 4 puntu.
- 2 jarduera: 2 puntu.
- Jarduera 1: puntu 1.

F) DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTENEBIKO SENTSIBILIZAZIO-JARDUERAK (0-5 puntu bitartean).

- Jarduera 1 antolatzea edo elkartean kide bat izatea: 2 puntu.
- 2 jarduera edo gehiago antolatzea eta/edo elkartean 2 kide ego gehiago izatea: 5 puntu.

G) ELKARTEAREN HISTORIA (0-10 puntu bitartean).

G1- Elkartearen jardueren bilakaera azken bi urteetan: 0-7 puntu.

- Jarduera berri bat: 3 puntu.
- Jarduera berri 2 edo gehiago: 7 puntu.

G2- Antzintasuna (elkartea Eusko Jaurlaritzaren elkartean erregistroan dagoenetik): 0-3 puntu.

- 0-5 urte: 0,5 puntu.
- 6-10 urte: 1,5 puntu.
- 11 urtetik gora: 3 urte.

H) EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREKIN KONPROMISOA AURKEZTUTAKO PROGRAMA GARATZEAN (0-10 puntu bitartean).

H1- Emakumeen presentzia zuzendaritza-organoetan: 0-5 puntu.

- 5 puntu: emakumeen presentzia %50etik gorakoa bada.



- 4 puntu: emakumeen presentzia %40 eta %49 bitartekoa bada.
- 3 puntu: emakumeen presentzia %30 eta %39 bitartekoa bada.
- 2 puntu: emakumeen presentzia %20 eta %29 bitartekoa bada.
- Puntu 1: emakumeen presentzia %1 eta %19 bitartekoa bada.
- 0 puntu: zuzendaritza-organoetan ez badago emakumerik.

H2- Programatutako jarduerak bat etortzea genero-berdintasunarekin: 0-5 puntu.

Azaldu zer egiten duten genero-berdintasuna sustatzeko, bai elkartearen eguneroko lanean, bai egiten dituzten jardueretan, eta horretarako zein bitarteko erabiltzen dituzten. Hona hemen adibide batzuk:

- Udalak antolatzen dituen berdintasunari lotutako ekintzetan aktiboki parte hartzea (adibidez, prestakuntza jarduerak, martxoaren 8a eta azaroaren 25a).
- Elkarteak antolatutako jardueretan parte hartzeari buruzko datuak biltzea, sexuaren arabera bereizita.
- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista, elkartearen jardurekin zerikusia duten euskarri guztietan, dirulaguntza eskatzeko proposamena eta justifikazio-memoria barne.
- Familia eta lana bateratzeko neurriak kontuan hartzea jarduerak programatzean.
- 5 puntu, jarduera guztiak emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzera zuzentzen badira eta Udalaren Berdintasun Planarekin osatzen badira.
- 0 puntu: genero-berdintasunaren aipamenik egiten ez bada.

I) ERAKUNDEAK EGITEN DUEN AHALEGINA BELAUNALDI-TXANDARAKO ETA KIDE GAZTEAK PROIEKTUAN SARTZEKO (0-5 puntu bitartean).

- 5 puntu: zuzendaritza-organoetan 35 urte baino gutxiagoko pertsona bat badago.
- 0 puntu: zuzendaritza-organoetako kide guztiak 35 urtetik gorakoak badira.

DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUEN IRIZPIDEAK:

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta proiektua gauzatzeko epean egiten direnak. Gastu horien kostua ez da inoiz izango merkatuko balioa baino handiagoa.

Ez dira halakotzat hartuko:

- Euskal Herritik kanpoko bidaiak (7 probintzia).



- Ekipamenduan egindako gastuak. Halakotzat hartuko dira makinak, altzariak, musika- edo informatika-ekipoak, garraio-elementuak eta, oro har, erakunde onuradunaren ondarea handitzen duen beste edozein.
- Kanpoko dokumentazio eta aholkularitza juridikoa.
- Beste gastu batzuk, horien titularra ez bada elkarte onuraduna.
- 300 eurotik gorako sari metalikoak.
- Finantza-gastuak.
- Amortizazio-gastuak.
- Zerga-gastuak.

Muga duten gastuak:

- DBLOaren arloko aholkularitza-gastuak gehienez 500 euro egotzi ahal izango dira;
- Mantenu- eta desplazamendu-gastuak diruz laguntzeko, ezinbestekoa izango da arrazoituta egotea eta diruz lagundu daitezkeen jarduerak egiteko behar-beharrezkoak izatea. Jarduera horiek berariaz justifikatu beharko dira proiektuan, eta eskabidearekin batera aurkeztutako aurrekontuan dagokion partida ekonomikoa jaso beharko dute.

Joan-etorrien gastuei dagokienez, diruz lagundu ahal izango dira garraiobide publikoak erabiltzeagatiko gastuak eta norberaren ibilgailua erabiltzeagatiko bidaia kalte-ordainak. Azken horiek 0,29 euroko gehieneko mugarekin lagunduko dira diruz egindako km bakoitzeko. Hala badagokio, diruz lagundu ahal izango dira autobideko bidesariak eta diruz lagundu daitezkeen jarduerak egiteko beharrezkoak diren aparkaleku-gastuak. Garraio publikoko joan-etorriak diruz lagunduko dira bidaia-tituluaren edo dagokion fakturaren egiaztagiraren bidez egiaztatutako zenbatekoarekin.

Hotel-establezimenduetako egonaldiagatiko gastuek dirulaguntza jaso ahal izango dute, eguneko 53,34 euroko gehieneko mugarekin, eta betiere ostatua hartu duten pertsonak eta ostatu-datak identifikatzen badira gastu horiek justifikatzen dituzten fakturretan. Bestalde, gualdirik gabeko mantenu-gastuak diruz lagundu ahal izango dira, eguneko 26,67 euroko gehieneko mugarekin.

13. artikulua.-Eskabideen ebazpena.

1. Eskabide arruntak gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatzi eta jakinaraziko zaizkie interesdunei, deialdia argitaratzen den egunetik zenbatuta.

Eskabide bereziak gehienez 30 egun naturaleko epean ebatzi eta jakinaraziko zaizkie pertsona interesatuei, eskabidea aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Interesdunek eskabideak ezetsi direla ulertu ahal izango dute, administrazio-isiltasunagatik, epea igarota berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez balitz.



2. Ebazpenaren jakinarazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egingo da.

Ebazpena ezezkoa bada, behar bezala arrazoitu beharko da. Ebazpena baiezkoa bada, Udalak idatziz jakinarazi beharko du onartutako zenbatekoa emateko oinarritzat hartu diren irizpideak.

3. Ebazpena, Dirulaguntzen Lege Orokorreko 18.artikuluan ezarritako eraz gain, Udalaren Iragarki Oholean argitaratuko da, eta onartutako dirulaguntzak baita web orrian ere.

14. artikulua.- Dirulaguntzaren ordainketa

Dirulaguntzaren zenbateko osoa ordainketa aurreratu bakar batean abonatu da, diruz laguntzen diren jarduerak izan ditzaketen gastuak finantzatu ahal izateko.

15. artikulua.-Dirulaguntzen aplikazioa eta justifikazioa.

1. Dirulaguntza gisa emandako zenbatekoa eskabidean adierazitako xederako izango da, bete-betean.

2. Justifikatzeko modua DLOren 75. artikuluan ezarritako justifikazio-kontu sinplifikatua izango da. Bertan, organo emaileak, justifikazio-dokumentazioa aztertu eta laginketa estratifikatu konbinatuaren teknika erabili ondoren, egokitutako jotzen dituen gastu-frogagiriaren originalak eskatuko dizkie onuradunei, baita horiek ordaindu izana egiaztatzen ere, dirulaguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko arrazoizko ebidentzia lortze aldera. Egiaztatze horiek, gutxienez, diruz lagundutako zenbatekoaren % 25 izan beharko dute.

Udal araudi honek arautzen dituen dirulaguntzen onuradunek ondoren adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte Lezamako Udalaren bulegoetan eta inolako errekerimendurik egin beharrik gabe. Urteko egitarauetarako, dirulaguntzari dagokion hurrengo urteko otsailaren 28ren aurretik, eta noizbehinkako edo aparteko egitarauetarako edota denboraldiko jardueretarako, diruz lagundutako jarduera amaitu eta hurrengo 30 egunetan:

a) Egindako jardueren eta lortutako emaitzen azalpen-memoria.

b) Gastu eta sarreraren azken balantzea eta gastuen justifikazioa *aurrekontu araztuaren % 60ra arte*. Diruz lagundutako egitarau nahiz jardueraren gastuei dagozkien originalen bitartez justifikatuko da, baita jarduerak egiteko lortutako diru-sarrerari dagozkien ere. Beste erakunde batzuek emandako dirulaguntzak onartu zireneko akordioak ere erantsi beharko zaizkie, udalari dirulaguntza eskaera egin zitzaionean ekarterik izan ez bazen.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreraren edo dirulaguntzen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria adierazita.



d) Diruz lagundutako jarduera garatzeko prestatutako esku egitarau, kartel, argazki, argitalpen eta bestelako dokumentazio grafikoan, jarduera Lezamako Udalak diruz lagundua izan dela agertuko da, euskaraz edo euskaraz eta erdaraz, baita Udalak emandako logotipo formalizatuak ere. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista ere jaso beharko da.

e) Dirulaguntza eskabideari erantsitako egitarauan agertzen diren helburuak zein mailatan bete diren.

Gastuen eta sarreraren justifikazioa aztertu ondoren, sarrerak gastuak baino gehiago badira, Lezamako Udalak gaindikinari dagokion kopurua kenduko dio, berak emandako dirulaguntzari. Kasu horretan, dirulaguntza jaso duen erakundeak dagokion zenbateko hori itzuli egin beharko du udal kutxetara.

Atal honetakoak aurreikusteko, gastu nahiz sarrera errealtzat joko dira, hala burututako ordainketa nahiz sarrerak nola eskatu daitezkeen obligazio nahiz eskubide diren ordaintzeko nahiz sartzeko dauden kopuruak, artean burutu ez badira ere.

3. Lezamako Udalak egingo du diruz lagundutako jardueren jarraipena, eta edozein unetan eska ditzake azalpenak nahiz bidezko deritzon agiriak. Udal araubide honetan araupetutako dirulaguntzaren bat eskuratu duen subjektuaren kontabilitateari buruzko ikuskaritza ere eska dezake.

16. artikulua.- Publizitatea eta hizkuntza euskarria.

1. Dirulaguntza eskuratzeko eskatzailea behartu egiten du, egitarauaren publizitatean, edonolako izan ere, udal laguntza eman zaiola jasota geraraztera, Lezamako Udalak emango dion logotipo formalizatuan, euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz.

2. Udal dirulaguntza jaso duen orok, erakundea nahiz pertsona izan, egitarauaren propaganda iragarlea euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz egin behar du, horri buruz onartutako hizkuntza irizpideen arabera. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista ere egin beharko du.

17.artikulua.- Ez betetzea eta itzultzeko betebeharra.

1. Honako kasu hauetan, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira:

a) Dirulaguntza beharrezko baldintzak bete barik lortu bada.

b) Emandako dirulaguntza eskatu zen xede jakinerako bada erabili edo aurkeztutako proiektuan aurreikusitako jarduerak ez badira burutu.

c) Dirulaguntza justifikatzeko beharra ez bada bete. Gastuaren zati bat justifikatuko balitz, justifikatu barik geratutako zenbatekoa itzuli beharko da.

d) Dirulaguntza emateko ebazpenean onuradunei ezarritako baldintzak edo betebeharrak ez direnean betetzen.

Itzulketa eskatzeko ebazpena dirulaguntza eman duen organoak emango du.



18. artikulua. Araubide juridikoa.

Deialdi honetan eta hori arautzen duten oinarrietan aurreikusi ez denari dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako haren garapen araudian xedatutakoari helduko zaio.

Lezaman, 2025eko urtarrilaren 27an. Alkatea, Jon Ander Aurrekoetxea Artetxe

